

Flandriako nekazariak agroindustriari leporatu diote dioxina krisiaren errua

Gobernuak ustiapenak geldiarazi dizkie frogek negatiboa eman badute ere

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Euskal Herrian bisitan dauden nekazari flandiarrek agroindustria salatu dute dioxina krisia eragin duen arrazoi nagusia delakoan. «Beldur gehien ematen diguna da agroindustriak hartu duen egundoko botereak», adierazi du Ignace Van de Walles Flandriako Nekazaritza Sindikatuko buruak.

FLANDRIAKO (Belgikako) nekazari talde bat Gasteizen ibili zen atzo Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak (EHNE) gonbidaturik dioxina krisiak eragindako egoera adierazteko asmoz. Iragan maiatzaren hondarretik ustiapenak Gobernuak itxita dauzkate askok, nahiz eta batzuen kortetan egindako frogek negatiboa eman.

Mia Niemegeers nekazaria hitza hartzeko aurrena izan zen atzo goizeko prentsaurrekoan. Berak, beste hainbatek bezala, ez du lurrik, eta pentsua kanpoan erosi beharra dauka nahitaez. Hortxe hasi zaio akabera: «Txerriei botatzan diegun janaren erdia pentsu konposatua izaten



JOSEBA OLALDE

EHNEko Nicholson eta Aristegi atzoko prentsaurrekoan, erdian, Flandriako nekazariak inguratuta.

da, guk gizalegez erositakoa, hain zuzen. Hala ere, gertatutakoa ikusirik, zeharo etsita gaude, inoiz ez baikenuen pentsatuko horrelakorik jazoko zenik. Azkenean nekazariok pagatuko dugu, eta beti kalitatea bilatuta ere,

dena galtzekotan gabilta agroindustriaren erruz».

Europak «gogorregi» erreakzionatu du

Ignace Van de Walles nekazaritza sindikatuko burua da,

eta ildo beretik, erruak animaliak elikatzeko industrian daudela uste du. Gainera, agroindustriak hartutako «botereak» beldurtuta dabil-tzala dio. Areago, «presio politiko gogor» bilakatu dela kritikatu du.

Hori guztia dela eta, dioxina krisiak eragiten dituen erreakzioak zorrotz neurtzeko eskatu zuten. Horrela, Van de Wallesen esanetan, Belgikako Gobernuaren nahiz Europako Batasunaren jokabidea produktorea (nekazaria) erruen begipuntuan jartzea izan ohi da, baina benetako erantzuleak bizi-rik suertatuko dira, eta gainera, dirulaguntzak jasoko dituzte: «Aurreko kasuetan ikusi dugu errudunak azkenean onuraz ateratzen direla, etekinekin». Niemegeersek, berriz, zera dio: «Nekazariok ez dugu errua. Europak gogorregi erreakzionatu duela uste dugu. Azken batean, (dioxina krisia) beste edonon gerta zitekeen».

Maite Aristegi eta Paul Nicholson EHNEko ardura-dunek indar handiz gaitzetsi zuten Belgikako Gobernuak hainbat ustiategi nahiz euren nekazarien salmentak geldiarazi izana. Era berean, flandiarrekin bat egin zuten agroindustriak dituen erantzukizun politiko nahiz finantzarioak salatzean. Horrela, Aristegik esan zuen «nekazaritza ekoizpen zeharo industrializatuaren aldeko apustuak agroindustriaren eta kimiken multinazionalen mesedea» baino ez dakarrela.

«Orain arteko produkzio sistemak porrot egin du. Gaurgero Gobernuak bestelakoa garatzen lagundu beharra du», zioten ia aho batez nekazari flandiarretako ordezkariak.